

amarauna ▶ Interneten garrantzia Kosovoko gatazkan

Kosovoko gerra telematikoa

Egunotan itzelezko gerra jarri da abian mundu osoko internauton pantailetan. Gerra telematiko horretan balak eta misilak barik, bit-ak jaurtitzen dituzte, kainoien ordeztuak modemak erabilia. Hala ere, ezin daiteke esan gerra birtuala denik, errealitatearekin lotura estua duelako.

INTERNETEN AROKO LEHENDA-biziko gerra da, aurretik hainbat gatazka eta guduxka izan badira ere. Gerra telematiko horretan informazioa da gai, arma eta xede nagusia: nor bere egia zabaltzea eta, ahal bada, besteena galaraztea gerraren parte garrantzitsuak dira. Gatazka lekua ez dago Kosovon edo Serbian bakarrik, mundu osoa hartzen duen sarean baizik. Belgradeko irriti debekatua aterpetu duen Holandako xs4all zerbitzarian eta EEBetako hainbat webgunetan igerriko da.

Kosovo gai nagusia dugu informazio guneetan; hango sarraskiaren berri eman eta laguntzeko moduak eskaintzen dira komunikabideetan eta GKEen guneetan. Baina zuzenki inplikaturiko aldeek ere sareak komunikazio tresna moduan duen balioa aurkitu dute. Horrela, alde bateko zein besteko hainbat

domeinu eta webgune sortu berri dira. Nabaria da amerikarrek kosovoarren alde hartu duten jarrera.

Kosovo Crisis Center helbidean, laguntza militarra, soldadu boluntarioak eta dirua eskatzen da Kosovoko UCKrentzat, eta bertan ikus daitezke haren alde borrokatza joatekoak diren amerikar boluntarioak New Yorken Instrukzioa egiten. Erasotako errefuxiatu taldearen

kasuan serbiarrei leporatzen diete eraso, NATOk bere ardura onartu duen arren. Informazioak gerra propagandaren forma hartzen du afera honetan. Gerra agiriak edo parteak medio berri horren bidez zabaltzen dira eta, horrela, NATOren webgunean agiri ofizialak ageri dira, UCKrenak beste batean irakur daitezkeen bezala.

Serbiarren aldeko guneak gaitzagoak dira aurkitzeko, mendealdeko komunikabideen loturetan ez baitira asko aipatzen. Haietako bat da Jugoslaviako Gobernuaren gunea. Bertan, herria zatitu duten nazionalismoen aurrean Jugoslaviaren nazioaniztasuna azpimarratzen dira, ez baitute beren burua nazionalistatzat aitortzen.

Serbian, NATOren erasoak Gobernuarekin kritikoak ziren asko Milosevic-en aldera bildu baditu ere, Gobernuak ez dago disidentziarik txikiena onartzeko prest, eta horregatik isildu zuen B92 irratiaren emisioa. Hala ere, iragan astean aipatu genuenez,

irritiak sarearen bidez bere mezua hedatzen jarraitu zuen, Realaudio sistema erabiliz. Horretaz oharturik, Gobernuak beste urrats bat egin zuen apirilaren 2an estudioak itxita. Egunotan, irritiak bere emisioak hasi ditu berriro, baina Gobernuak ezarritako zuzendari berri baten gidaritzapean.

Irrati horren itxteak, ANE-Mena eta prentsa independente guztiaren ezabatzeak kontrasterako aukerak murriztu ditu publiko serbiarrentzat. Horregatik, serbiar askok Interneten dute aukera bakarria Gobernuaren bertsioa ez den beste bat jasotzeko. Baina sarearen egitura oso ahula da Jugoslavian, bonbardaketen eraginez eta Gobernuaren sarbidea murrizten ari delako.

Krisiaren gainean informatzeko gune informatibo eta neutralak ere sortu dira. Steven Clift-en Kosovo Reports gunean gerraren aurkako mezuek jasotzen dira alde baitetik zein bestetik. Haietako batzuk, Sava Janjic Kosovoko apaiz ortodoxoak bidaliak. NATOren aurka eta Serbiaren defentsan gogor egiten du, bakearen alde dagoela gogoratuz. Beste ekintzaile telematiko bat 16 urteko neska albaniar-kosovoar bat da, Adona. Gatazka paralelo horretako protagonista gehienak izengabeak edo ia ezezagunak dira.

Informazioa, ustez neutrala:

- ▶ Kosovo Reports
<http://www.egroups.com/list/kosovo-reports/>
- ▶ B92 Irratia
<http://www.b92.net/>
- ▶ Serbiarren alde:
http://www.gov.yu/kosovo_facts/index.html
- ▶ Media Centar Pristina
<http://mediacentar.org/>
- ▶ Kosovoarren alde
www.kosovo.org
- ▶ UCKren agiriak
<http://www.zik.com/>
- ▶ Kosovo Crisis Center
<http://www.alb-net.com>
- ▶ NATO
<http://www.nato.int/>

Info

Hackerrak erabiltzen

Internet gerrako hirugarren fronte deitu dute. Informazio gerra ez ezik, bestelako eraso mingarriagoak ere egingen dira sareko gerran, *mail bombing*-a eta *hacking*-a esaterako. Duela egun batzuk, zabaldu zen NATO serbiarren sistema informatikoei eraso nahian zebilela. Ez da ahaztu behar sarea asmakuntza eta kontzeptu militarra izan zela jatorriz eta, egun, herrialde gehienetako armadek horrelako egiturak erabiltzen dituztela euren antolaketan. Buelta etorri zitzaion NATOri ustez serbiarrek ziren hackerrek haren webguneari eginiko erasoan. *Mail bombing* ikaragarria egiteaz gain, *ping* eraso arrakastatsu baten bidez sistema blokeatu eta, gainera, macro birus bat sartzea lortu zuten iragan Aste Santuan, NATOk berak aitortu zuenez.

Elkartasunerako aukerak

Gaurko gai monografiko honenkin bukatzeko, elkartasuna bideratzeko sareari daudden aukerak aipatu behar ditugu. Giza eskubideen aldeko erakundeetan sarraskien gaineko informazioa nagusi bada ere, Caritas erakunde eliztarra laguntza bideratzeko mugitzen ari da, eta, webgunerik ez duen arren, haren ekimenen berri aurki dezakegu *La Brújula* aldizkarian, gai honi eskaintako atal berezian. Beste erakunde batzuek presentzia dute sarean; errefuxiatuen sustengurako Gurutze Gorriaren atalak, esaterako. Katalunian, antolatuko den konboirako beharrezkoak diren gaien zerrenda ageri da. *Mueve un dedo por Kosovo* laguntza kanpainia ere abian jarri du Internautas Por La Paz-ek.

Gurutze Gorria
<http://www.icrc.org>

Catalunya per Kosovo
<http://www.gencat.es/kosovo>

Mueve un dedo por Kosovo
<http://fractal.es/kosovo/>

ZURE DENDA BIRTUALA



www.jalgi.com/megadenda